

**SANTANDER CRUE CEPYME PRAKTIKAK ENPRESETAN BEKEN
PROGRAMAREN BARNE KUDEAKETARAKO PROZEDURA**

2017 ikasturterako deialdia

2017/03/29

[Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza]

Zentroen Parte-hartzea

Bekak banatzen dira kontuan izanda beken kopurua eta Zentroetan matrikulatutako ikasle kopurua. Zentroari dagokion kupoak esleitzeko, **ezinbestekoa** izango da berrestea erantsita bidaltzen dizugun inprimakia bidaliz **2017ko apirilaren 12a** baino lehenago.

Hautagaiak

Parte-hartzen duten zentroetako ikasle guztiak hautagai gisa onartuko dira, beken aurreko deialdietan onuradun izan ez direnak, betiere oraingo ikasturtean matrikulatuta badaude eta datuak ateratzen diren datetan espedientea irekita izanez gero.

Praktiken Zerbitzuak parte-hartzen duten Zentroi Santanderren Webean izena eman duten bere ikasle hautagaien zerrenda bidaliko die, oraingo ikasturtean matrikulatuta daudenak eta espedientea irekita dutenak. Zerrenda berean ere agertuko dira izena eman duten ikasleak baina baldintzak betetzen ez dituzten ikasleak, "Espedientearen egoera" izeneko zutabearen arrazoiak azalduz.

Ezinbesteko baldintzak dira ikasleak **espedientea irekita** izatea Banco Santander plataforman beka esleitzen zaionean eta praktika hasten denean.

Ikaslea esleitzeko prozedura

Zentroko Praktiken arduradunari beken kupoak jakinarazi ostean, Zentroak enpresarekin dagokion praktiken hitzarmena kudeatuko du eta beken onuradunak aukeratuko ditu praktiken araudia betetzen duten bere zentroko ikasle hautatuen artean eta eskaera egingo dio Zentroen Zerbitzuari dagokion dokumentazioa bidaliz **maiatzaren 8a eta 24a** artean, esleipenak egingo diren datak.

Aurreko lerroetan aipatutako esleipena egiteko, hainbat inprimaki emailez bidaliko dira kupoaren banaketa jakinaraziz. Esleipena eskatzeko Zentroak dokumentu hauek bidali behar ditu:

- Ikaslearen NA
- Bekaren esleipenaren eskaera
- Aurreko deialdietan bekaren onuradun ez izanaren zinpeko adierazpena

Aurreikusitako datetan ez badira esleitzen parte-hartzen duten Zentroetan kupoagatik egokitzen zaizkien bekak, soberakin geratzen diren bekak maiatzaren 24ren ondorengo egunetan banatuko dira, Praktiken Zerbitzuan (borondatezko.praktikak@ehu.eus) jasotzen diren eskaerak kontuan izanda, datak eta orduak zorrotz errespetatuz

Bekaren Modalitatea

- 3 hilabete egunean 4 orduko lanaldikoa (beka osoa 900 euro)
- 3 meses con jornada de 4 horas diarias (900 euros beca completa) aldeberean finantziatuta %50ean bankua eta parte-hartzen duten ETE (Enpresa Txiki eta Ertaina)

Praktikak beti **hilabete osotan** egingo dira.

Praktiken deialdiaren oinarrietan 2017ko iraila arte egin daitezkeela azaldu arren, praktiken kudeaketa ikasturtearen hasiera eta amaiera datei egokitu behar zaio eta zehazki esanda, 2017ko **ekainaren 1a eta abuztuaren 31a arteko denboraldiari**.

Bekaren zenbatekoa eta gizarte-segurantzaren alta

Unibertsitatean Banco Santanderretik jasotako diru-kopurua bideratuko du ikasleari dagokion beka ordaintzeko hilabetea pasata eta gizarte-segurantzari ordaintzeko dagokion kotizazioa laguntzaren erakunde ordaintzaile gisa.

Aurreko deialdian bezala, hitzarmenean agertu behar duten kopuruak apirilean zehar bidaliko dira.

Gizarte-segurantzaren emandako altei buruzko informazioa jakiteko, biztanleriari administrazioak zerbitzua eskaintzen dio erabiltzailea eta pasahitza erabiliz, aukera emanez kontsulta egiteko erregistro baten bidez aktibazio kodearekin:

http://www.seg-social.es/Internet_1/HERRAMIENTASWEB/serviciosclave/index.htm

Informazioa eta zerrenden argitaratzea

Bekari buruz ikasleei eta enpresei ematen zaien informazioa, hautagaien behin-behineko eta behin-betiko zerrendak eta bekaren erabakia, Enpleguaren Atari tematikoak argitaratuko dira, helbide honetan:

<http://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/santander-bekak>

Behin-behineko zerrenden alegazioak ikasleek aurkeztu ditzakete parte-hartzen duten Zentroetan (**apirilaren 26tik 28ra**). Zentroek alegazio horiek Praktiken Zerbitzura bidaliko dituzte (**maiatzaren 2tik 3ra**) dagokien zerrendetan sartu ala ateratzeko.

Kontuan izanda Bankuaren plataforman edozeinek izena eman dezakeela, kanporatutako zerrendan agertuko dira: aurtengo ikasturtean matrikulatu

gabeko hautagaiak, deialdi honetan parte-hartzen ez duten Zentroetako ikasleak, datuak jasotzean espedienteak itxita zuten hautagaiak eta aurreko deialdietan bekadun izan direnak.

BECAS CRUE CEPYME PROGRAMAREN KUDEAKETA DOKUMENTUAK

- **Parte-hartze berrespena.**
- **Kupoaren jakinarazpena**
- **Bekaren esleipenaren eskaera**
- **Ikaslearen zinpeko aitortza**
- **Egutegia**
- **Alegazioen inprimakia**